

GIZARTEA TA IZKUNTZA

EUSKO IKASKUNTZAK *Aingeru Irigaray-ri Omenaldia* (San Sebastián 1985) liburu aberatsa argitaratu dau. Ornitzen dabon lanen artean (geienak jakingarriak), bat azpimarratu gura dot emen: J. M.^a Sánchez Carrion'en «La nueva sociolingüística y la ecología de las lenguas» (327-345 or.) «Barria», zegaitik? Egillearen ustez orain arteko soziolingüistika izkuntzajakintzaren alde edo zati bat baiño ez da izan. Linguistika barriak, ostera, gizarte-lingüistika izan bearko dau, izkuntza ikerketa gizonagandik eta gizarteagandik inondik be banandu barik (332). Orretarako olango edo antzako oiñarriak euki bearko ditu kontuan:

1. Gu barik, ez da izkuntzarik. Baiña izkuntza barik, geu be ez gara.
2. Bakotxak bere lekua dauka izkuntzan. Ain zuzen be, izkuntzak beragan daukan lekua.
3. Bakotxak aalbide batzuk beteten ditu izkuntzan: ain zuzen be, izkuntzak beragan beteten ditun aalbideak.
4. Izkuntza geuretzat garrantzizkoa dancan gara geu be garrantzitsuak izkuntzarentzat (332-3).

Izkuntza ikasteen iru eragillek parte artzen dabe beti: motibaziñoak, entzuteak eta erabilteak. Baiña lenengoa motibaziñoa da. Lenengo agertzen dana eta lenengo galtzen dana, izkuntza

bera galdu baiño askoz lenago (334). Motibaziño au ez da bardiña lenengoz izkuntza ikasten daben ume txikiakan, eta aziakan. Umeak motibaziñorik aundiena dau, izkuntza bere bizitza ta giza-izaterako bear dau-ta, bere inguru-munduagaz artu-amonak izan eta bear dauan guztia artzeko. Aziagan, ostera, lenengo izkuntzagazko konformidadeak edo diskonformidadeak erabagiten dau bigarren izkuntzarako motibaziñoa: lenengoagaz guztiz konforme badago (au da, danetan eta danetarako naiko badau), ez dauka bigarrena ikasteko motibaziñorik. Eta, bestera, lenengoagaz oso-osorik diskonforme badago, bere izkuntza-izakera bera aldatzera joango da naitanaiez. Aal dauana egingo dau, eta berak aldatu izan badau be, bere ondorengoak egin dagien aleginduko da (334-335).

Asikeran, izkuntza guztietako ume guztiak dauke motibaziño bardiña bakotxaren izkuntza bereganatzeko. Azieran ez da olan gertatzen artutako izkuntza zaintzean. Eta, gero, Estadu andiak izkuntza bakardunak izatera jotzen dabe. Ofizialki, edo egitez beintzat, izkuntza bakar bat artuazoten dabe. Besteen besteak ilda (335). Lenengo izkuntzaren betekizun batzuk betez asten da bigarrena. Baiña geroago ta geiago zabaltzen da lenengoaren arloa gitxituten doala. Momentu baten, nibelatu ta lez ikusten dira («elebitasuna»); ez da orekarik, ez elebitasunik: gorantza ta beerantza doazan izkuntza biak momentu baten alkarten parean aurkitzen dira; baiña, berez, gorantzako ta beerantzako bidean jarraitzeko (337).

Adibidetzat egilleak Japon'go Ainu erriagaz eta izkuntzagaz jazotakoa gogoratzen dau. Gaurko japondarrak sartu ziranetik asi zan ainuen galmen bidea, azkenengo gizaldietan batez be, gaur onezkero deuseztatuta dagozala (338). Deuseztatze onen bidean iru momentu ikusten ditu idazleak: lenengo, izkuntza-alkarte biak gizarte ta politika batasunaren barruan sartzen dira. Batasun orren aalbideak izkuntza-alkarte batekoen eskuktan dagoz, eta oneek menperatuen alkarte naturala desegiteko bideak ipinten ditue, batasun zabalagoan osorik sartu bearra erakutsiz. Batasun au baiña menperatzailléen izkuntzan (eta pentsakeran) jazoten da (339-40). Bigarren momentuan, menperatzailléen kultura da

erreferentzi puntu bakarra, eta menperatuen izkuntza bigarren maillako tresna, beti be menperatzaillenen kulturari lotua. Momentu onetan (ainuen adibideari jarraituz) sortzen dira nobereganako gorrotoa eta menperatzaillenganako arrimena: menperatuak euren bereizgarri lotsagarriak kendu egin gura dabez, edo estaldu besterik ezean, menperatzaillak lakoak edo antzekoak agertzeko (340-42).

Irugarren momentuan, menperatuak elebidunak dira, baiña euren izkuntza gizarte-balio gitxikoa denez, elebakardun biurtzera doaz jatorri-izkuntza guztiz galdu arte. Olan askatzen diran euren izkuntza lotsagarri eta balio bakoetik (342).

Izkuntza galtzea besteratzea da: nobere izakera itzi eta besterena artzea. Giza taldeak -eta batez be gobernuak- badakie «geu», «zuek», «arek» idea oiñarrizkoetan bat egiñaz bakarrik, eurrakanatzen dabezala beste taldeak. Baiña izkuntza bat galtzea ez da Estaduari dagokion arazoa, giza-izkuntzari dagokiona baiña. Estadua baiña lenagokoak dira izkuntza-alkarteak, eta geuk gura badogu eta geuk gura dogulako, giza izkuntzaren barruan duintasun bardiñagaz jarraitzeko eskubidea dauke (343-44). Munduko unidadeak izkuntza-alkarteak dira, duintasun bardiñekoak. Duintasuna (eta bardintasuna) giza izatetik datorkie ta (345).

Idazki onen meritua batez be bere argitasunean ikusten dot. Sakon be ikusten dau izkuntza ta gizarte arteko loturea, eta, beraz, izkuntza galmen bidea. Baiña batez be aurrez aurre daki gauzak azaltzen. Baiña, berak ondo esandakoari jarraitzeko, idealista samar geratzen dala esan leike. Galmen bidea, eta izkuntzaren duintasun ta eskubideak argitan jarri ditu: baiña konkretoki ez da ikusten konpon-biderik (ez da aipatzen idazkian, eta, neurri baten beintzat, ez dago benetako konpon-biderik). Lenengo ta bein, bearbada boluntarismo geiegiz ikusten ditu gauzak. Jakiña, argi dago taldeak eta gobernuak beste izkuntza-taldeak desegin gura dabezana. Baiña, au iñondik be aaztu barik, egoera eta egite objetiboen indarra be ikusi bear dogu. Izkuntzak eta kulturak ez dira besteak nai dabelako bakarrik desegiten, inguratzen dituan kultura indarrak iruntziten dauzalako baiña. Jakiña, «indar» au be analizatu egin bear da: orain ze eragillek sortzen da-

ben eta istorikoki nondik datorren; istorikoki, baliteke gizaldietako injustiziaren ondorioa izatea (seguruen, bat be ez da izango, il diran edo il zorian dagozan izkuntzetan, politika erasoak jasan ez dauanik). Baiña au olan izanda be, *orain*, politika erasoaren ondoan, edo aparte, kultura indarra dago. Kultura indar onetan be, jatorrian gitxienez, politika eraso eragiña dago bearbada; baiña, dana dala, *orain* politika erasoak bakarrik ez dan kultura indarra be bada. Gogoratu daigun Irlanda'n jazorikoa: politika erasoak asitakoa, gero (politika askatasuna lortu ondoren) kultura indarrak ia amaitu dau. Au olan dala, euskaldunok egizaleak eta errealistak izan bear dogu: alderdi batetik, politika askatasuna ez da naiko gure izkuntza ta kultura salbetako. (eta badaukagu besteren lepoan erru guztia jarteko arriskua); beste alderditik, gure izkuntza ta kultura arloa (espazioa), naitanaiez txikia dogu. Jakiña, ez dago izkuntzarik besteren bearrizanik ez dauanik. Eta ondo dago gaiñera beste izkuntza ta kulturen bearrizana izatea: gizatasunean bat garanez, besteen kulturak be geureak dira ta; kultura frutuak azken baten ulertzen ta maite dituanarenak dira. Baiña gure izkuntzaren mugak, beste batzuren aldean, estuak doguz. Orregatik, beste izkuntzen bearrizana aparteko eraz sentiduko dogu: orixe da ain zuzen be inguratzen gaituan kultura indarra. Batetik, kultura orretaz be baliatu bear, baiña bestetik, geure izkuntza arloa zaindu ta desarroillatuz. Onetan be errazoa dau idazleak: «geuk gura dogulako» (344) jarraituko dau euskerak (geure euskal izateak, geure izateak). Baiña mugak eta eginbearrak errealismoz gogoan arturik.

Emen esandakoak ez dau bakarrik, esate baterako, euskera ta gaztelerarako balio: zapaltze ta galmen bide au euskalkien artean, euskerearen beraren barruan be jazo leiteke. Eta sartu gara bide orretan: umeak eurena ez dan euskera literarioa ikasten; betiko euskaldunak, beti euskal munduan bizi izan diranak, euren euskereaz lotsaturik. Batasunaren izenean erri kultura ta izkuntza zapaltzea zaarra da, inperioak izan diranetik onakoa; demokratikoa, askea, erriari duintasuna emoten dautsona da beti barria, ta aurrerakoia.

Luis Arostegi